

BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 175. alea - 2013ko ekaina




**Indartsu hasi da
giza proba taldea**

multiópticas UZURI

OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA
TEL. 943 19 21 92

multiópticas Uzuri

ZURE
ENTZUMENA
ZAINTZEN



Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel.-faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com

A D

ASESORIA DEBA C.B.
JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617
Eduarne: 669 895 619

Tel.: 943 192 127
HONDARTZA, 2 - BEHEA Fax: 943 192 482
20820 DEBA (GIPUZKOA) ase.deba@teletel.es

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA
Tel.: 943192263
www.atarideba.com

Lizaso
Autozerbitzua

Lersundi Kalea, 21
Tlfnoa: 943 19 27 29

ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

oskarbi

Menua
Ogitartekoak
Plater Kombinatua

Lersundi Kalea, 9
Tel. 943 029 488 - 619 664 014
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

MAZZANTINI
TABERNA

Sakagin, 7 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel. 943 192 422

BOKATAK - PINTXOAK
ETA GIRO ONA

Informática Telemática
informátika telematika

JE

Elektronika Osegai
elektronikoa osegai

Maxpe kalea, 7 - Behea
20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
Faxa: 943 19 18 36
Mugikorra: 686 939 601

e-mail: jic@informaticajelektronika.e.telefonico.net

Bordatxo
JATETXEA

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater kombinatua - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

Zesterokua Plaza
Tel.: 943 029 376
Bazkariak: 13:00 / 16:00
Afariak: 20:00 / 23:00

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83
Aldizkariaren e-maila:
berriketan@zuhatza.com
Elkartearen e-maila:
koordinatzailea@zuhatza.com

Argitaratzailea:
Zuhatza Euskara Elkartea
Erredakzio taldea:

Goizane Aizpurua,
Mikel Aizpurua,
Koldo Aperribai,
Izaro Aulestiarte,
Nagore Dorronsoro,
Lukax Dorronsoro,
Xabier Laka,
Migel M.Lekube (Lutxo)

Ina Oiartzabal eta
Eider Zulaika

Azaleko irudia:

Ander Salegi

Publizitatea:

Joseba Escudero eta
Juan Mari Gurrutxaga
Tlfnoa.: 943 19 13 83
943 19 26 94

Logotipoaren diseinua:

Iñaki Elosua

Maketazioa:

Leire Rubio

Banaketa arduraduna:

Juanma Oiartzabal

Inprimategia:

Euskalinpri

Tirada:

1.400 ale

Lege gordailua:

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTU-NAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan behar-ko ditu eta berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

ARGITARATZAILERAK



LAGURTZAILERAK



Debako Udala



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA BULTZA SAILA
Hezkuntza, Hezkuntza Politikak
Departamento de Educación,
Política Lingüística y Cultura
Ministerio de Política Lingüística y Cultura



Gipuzkoako
Foru Aldundia

8



9



10

**ZER GINEN ETA
NOR GARA?:
Ekaina euskal
ohitura eta tradi-
zioei eskaini die
Udaleko Euskara
eta Hezkuntza
Batzordeak 8**

KOLABORAZIOA: Gilen Garcia, "Elkar maitez...". **05**
ALBISTEAK: Yolanda Arrieta idazlea udal liburutegian,
Josune Arakistainek eta Alaitz Escudero txapela lortu zuten
Getarian... **9** **BERRIKETAN GAZTEA:** Elkarrizketa
Tomas Aznal irakasleari, denbora-pasak... **11-14** **ELKARRIZ-
KETA:** Giza proba taldeak ilusioz ekin dio bere ibilbideari. **15**
LABURRAK: Herriko jubilatuek Cantabrian, Debako ibilke-
ta nordikoaren gunea... **16-17** **ZERBITZUAK:** **18**



15



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Joseba Galarragari

Iepa, Potzu: Urte askotarako!! Zorionak!

Muxu handi bana bidaltzen dizugu aspaldian zapaldu ez duzun plaza zahar honetatik.

Ekainaren 19a, zeure urtebetetze eguna izanik, ongi pasa ezazula opa dizugu. Badakigu muga eta oztopo ugari duzula zeuk nahi bezala eguna antolatzeke, baina irudimenak ez du mugarik eta besterik ezean egin ezazu amets.

Bertso batek dioen bezala:

*Gu prest gaude distantziak
muxuka laburtzeko,
gu prest gaude besarkadaz
kateak apurtzeko,
gu prest gaude barroteak
laztanekin urtzeko...*




Datorren urtean, Euskal Herrian ospatu dezazula egun hau. Hori horrela izan dadin, guk lanean jarraituko dugu.
Debako Herrira Bilgunea

Badatoz Kolorez Blai udalekuak!!

Dakizuen bezala, aurtengo udalekuak Zuhatza Euskara Elkarteak kudeatuko ditu, elkartearen baitan sorturiko Kolore Anitz Aisialdi Taldearen eskutik.

Aldez aurretik eskerrak eman nahi dizkizuegu guran jarritako konfiantzarengatik, izen-ematea oso arrakastatsua izan baita. Guztira 200 bat lagun bilduko gara udako aisialdiaz euskaraz gozatzeko.

Gure helburuetako bat udalekuei beste bizitasun edo kutsu bat ematea da. Ilusio handiarekin gatoz gure herriko txiki-udara koloretsu eta ahaztezin bat eskaintzeko asmotan. Lehen urtea izanik, jakin badakigu gorabehera zein akatsen bat



edo beste ere egin dezakegula, baina horietaz ikasi eta udara zoragarri bat pasatzeko asmotan gatoz.

Kolore Anitz Aisialdi Taldea

urlo
SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

API
Nº. 379

Higiezinaren Zerbitzuak
Aholkularitza
Higiezinaren Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo
Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)



GILEN GARCIA

ELKAR MAITEZ...

Hasiera batean gazteriaren egoera ekonomikoaz eta kanpora irtetearen errealitateaz idaztea pentsatu nuen. Ondoren, azkenengo grebaren eta honek burura ekarritako hainbat hausnarketaz aritzea otu zitzaidan. Baina ohiko eskema horietatik haratago, eta izan dudan brote sentimental baten ondorioz, sentimenduen esparruan murgilduko naiz oraingoan. Nire bizipen pertsonaletatik abiatuta bizitzaren inguruan ditudan hainbat gogoeta konpartituko ditut.

Duela bi urte gutxi gorabehera gertakari bortitz bat izan zen nere bizitzan, gaixotasun bat zela eta amak utzi egin gintuen. Bizitzaren legea den heriotzak sekulako irakaspena eman zidan bat-batean. Hala ere, ondorengo sentimenduen nahasmena izan da gogorrena; izan ere, oso zaila da horrelako gauza baten aurrean prestaturik egotea. Gure kasuan, gaixotasuna izan zen bitartean eta nere amak bultzaturik, sekulako indarra egin genuen gure inguru estuena itzelezko maitasun nukleo bilaka zedin.

Sufrimendua, frustrazioa, tristura, etsipena,... bizitzari atxikiarik dauden elementuak dira besteak beste. Nahi edo ez horiei aurre egin beharrean aurkitzen gara bizitzan zehar, bakoitzak bere estrategiak darabiltza; baina, ez dago hauei ihes egiterik, aurre egin behar zaie beti. Hortaz, sentimenduak kudeatzen jakitea oso tresna baliagarria zaigu bizitzan aurrera egin ahal izateko, pertsona gisa duin senti gaitzen bizitzaren oldarraren aurrean.

Kasu honetan, maitasunaren apologia bat egin

nahiko nuke, maitasunaren bitartez gaindiezin iruditzen zaizkigun mugak goititu baititzakegu. Hori bai, maitasuna landu beharra dago; esfortzua suposa dezake hasiera batean baina epe luzera ematen dituen emaitzak ezin hobeak dira. Gutako bakoitzak gure muga eta beldurrak ditu; horietaz geure buruarekin eta inguruan ditugun adiskide maiteenekin hitz egitea oso garrantzitsua da, bakoitzak bere modura, baina eginaz. Bide honetatik, sufriarazten gaituzten egoerei aurre egitea askoz errezagoa da, izan ere, gure inguruko babesa sentitzea sekulakoa da. Nire kasu pertsonalera joanez gero, nire aitaren, nire anaiaren eta nire lagunik gertukoenen babesak maitasun nukleo hori bizirik mantentzen eta indartzen lagundu zidan eta gaur egunean ahuldade sentimentalak tartean direnean badakit zeinengana jo.

Heriotzaz eta gaixotasunaz gaindi badira beste sufrimendu mota ezberdinak, bizitzaren ari garen garai hauetan areagotzen direnak. Hala ere, gure indarguneak nabarmenduz egingo diogu aurre sufrimendu orori; une horietan gure balioetan berrestea garrantzitsua da. Errepikatzen baldin banaiz ere, garrantzitsua iruditzen zait gure buruarekiko eta ingurukoekiko maitasuna bizirik mantentzea ezinbestekoa dela esatea. Horretarako maitasuna jasotzen eta ematen ikasi behar da, inongo lotsa eta konplexurik gabe.

Tarteka malkoz baina, aldi berean, poztasunez idatzi dudan testu honen amaiera gisara esan nahiko nuke inoiz ez dela berandu, prozesu bat den bizitza honetan, elkar maitatzen hasteko.





Debako Gazte Asanblada

Gaia: BERTSO ESKOLA

1 Bertsoen neurria
erriman soinua,
hitza du mugarría
giltzarri doinua.
Hizkuntzaren irria
aberats leinua,
euskara aberria
bere erreinua.

2 Gaztetxean bero-bero
izaten gea arrastiro,
teilatua falta arren
zaintzen dugu maitekiro.
Gaztea ta euskalduna
gaztetxean dela giro,
bertso gose eta grinez
ez gaudenez oso txiro
o(ho)ltza gainera lagunok
nahi izaten dugu igo,
bertsotan hasteko gogoz
egoten garen aldiro,
bertsoeskolaren beharra
sentitzen dugu berriro.

Doinua: ETAreñ su-etenetik

3 Herri hontan somatzen da
bertsoaren gabezia,
guda garaia bailitzan
sekulakoa gosia.
Gogaitu zaigu olgeta,
nork jolas, eman bizia.
Orain armaik bortitzena
gozamenek ikasia.
Indarrez bultzako zaitu
baitirudi lubizia,
urritasunaren aurka
gaztetxea lubakia.
Izan zaitez gudaria,
izan hitzaren aztia.

Doinua: ETAreñ su-etenetik



4 Ikasle eta maixu,
iltze eta mailu,
gidaria izango da
gaueko kriseilu.
Bertsotarako bide
ideien lokailu,
bertsoeskola baita
zure ibilgailu.

5 Erabilpen txarrekin
burmuina uherra,
hegan egin ezinik
preso eperra.
Irudimen den-denak
hezkuntza du zerra,
bizi poza urtzen du
eta enaiz erra.
Batzutan ankerra,
orotan okerra,
garun denak lerra,
ez da horren berra
Arte ta kulturaren
betiko gerra.

Doinua: Gaztalondo handian

6 Zelaian egunero
hazten da belarra,
sagarrondo loretik
beti sagarra.
Ohetik altxatzean
atera kalparra,
atzoko ogi ona
gaurkoan kaskarra.
Zazkarra, zazkarra,
baldarra, baldarra,
azkarra, azkarra,
ez da gauza za(ha)rra.
Bertsotarako aukera
dezu bakarra.

Doinua: Gaztalondo handian

7 Gazteriak bertsoa
egin nahi du bere,
krisi garai honetan
zaila da halere.
Lau hormaren artean
nahiz teilatu gabe,
ez gaituzte beldurtzen
zaparradek ere.

Helbide honetan aurki daitez-
ke doinuak:
[http://bdb.bertsozale.com/web/doinute-
gia/bilaketa](http://bdb.bertsozale.com/web/doinute-
gia/bilaketa)

Doinuaz batera kanta itzazu!

Manex, Joanes eta Antton

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza, 3-4 behea - Apartado, 31
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel./Fax: 943 192 249
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

Jari zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatz

943 191 383
berriketan@zuhatza.com

XXVII. ANTZERKI ASTEAREN KRONIKA, ETXE BARRUTIK



LES TAMBOURS DE FEU

Ilun, goibel zabaldu zaigu maiatzaren 24a. Eguerdira bitartean negarrez ere ikusi dugu maiz, eta, busti egin gaitu. Bazkal ondoren, triste samar gaude geu ere, eguzkiak keinuren bat egingo zigulakoan baixeunden, gero onaren itxaropen garri. Baina, ez; lodi samar jarraitzen dute hodeiek eta malko bakanak darizkie, oraindik ere, aldian behin.

Arratsaldeko bederatzia ingururako taberna-terrazak bete dira herriko plaza nagusian. Bat-batean, jende hori gutzia jaiki egin da asaldua. Trumoi burrunba ikaragarri batek jarri gintuen Aker-zulorantz begira. Lurralde exotikoren batetik etorritako jende ikusgarria azaldu zen, danbor eta atabal ozenak, erritmo kutsagarri, astinduz, dena sinu eta keinu, aurpegia, margoz baino gehiago, antzez jarrera bereiziz maskaratua zekartela.

Plazatik abiatu eta, kalez kale joan ziren, jendetza txunditua atzetik zutela, durrunda eta tximist, ordu bete geroago, berriro Plazan, jardunaldiari amaiera eman zioten arte.

Jende harrituaren txalo-zaparrada jasoz itzuli ziren berriro Aker-zulora.

EMAZTEGAIAREN SEMEA

ALDATS Pilotalekurantz barra-barra doa jendea, ohi baino goizago. Larunbat iluntzeko bederatzia dira eta hamar t'erdietan da antzerkia hastekoa.

ADOS Teatroa lehendik ere ezaguna da gurean; antzezleri zerrenda ospetsua dakar, gainera, oraingoan eta kritikak goretzia dator.

Eszenatokiak berrehun ikusle har ditzake, itxura onean ikus-entzutekotan, eta, dena bete zen.

Emanaldi txukuna atera zitzairen eta txalo zaparrada oparoa jaso zuten. Egia esan, ez genuen gutxiago espero.

KALE GORRIAN

IBILALDIA Portugaleten. Anoetan Txapeldunen Ligarako aukera jokatzen du Errealak. Euskaltzale multzo polita ikusi dugu tren-geltokian, Bizkairako andenean. Lau autobus bete dituzte futboltzaleek Anoetarako.

Lezoko ORRATX Antzerki Taldea ezaguna eta begikoa dugu Deban; baina, bezperan bezalako betekadarik ez zuen hartu Pilotalekuak.

Antzerki polita ekarri ziguten: arazo larri bati kritika, era komiko zorrotz bezain barregarrian emana. Bildu ginen berrogeita bost ikusleok gogoz txalotu genuen eskaini ziguten jolas aldia.



AMONA HONEKIN... KONTUZ

Malko artean esnatu zitzaigun asteartean ere eguna; gero, aterrunek luzatzen joan baziren ere.

Eskola antzerkiaren eguna genuen. Luzaro ikastetxeko LH 3. eta 4. mailako ikasleak zituzten ikusle Aizarnako eskola txikiko antzezleriak. Bi emanaldi: 10:30ean eta 11:30ean. Zaharretxeko aitona-amona bihurri antzaldatu zitzaizkigun Aizarnako haurrak.

Xarmangarria gertatu zen saioa. Txalo handiak irabazteaz gainera, Debako irakasleen onspen hitzak ere jaso zituzten.

DANTZAN

Umez betea zen ALDATS Pilotalekuaren aurreko plaza, asteazken arratsaldeko lau t'erdietarako. KORRI, XALTO eta BRINKO pailazok, DANTZAN ikuskizun berriarekin, dantzan erabili zuten Debako haurreria, ordu bete eta gehiagoan, etenik gabe.

Bukaeran, txitak oilo lokaren ondora bezala bildu ziren umeak pailazo-enganara, musu eta kontu.

LURRA ASTINDUZ

Azken eguna du maiatzak. Udaberri deritzan urtaroa ere azkenetan dugu laster. Hotz grisa dugu giroa, hala ere, neguari agur egiteko beldurrez bezala.

ALDATS Pilotalekuan, ordea, beroa ari dute, goizeko hamaitetarako, KARRIKA Antzerki Taldearen teknikariek, kopetan behera izerdia dariela.

Garaia baino goizago doa iluntzen arrats bustia. KARRIKAREN LURRA ASTINDUZ antzerki lanak herrian piztu duen irrikak gainditu ahalko ote du eguraldi mingots honen traba?

Ordu erdia falta da hamar t'erdietarako. Bakan, baina, ari da jendea takilara hurbiltzen. Azkenean, hirurogeita hamar..., laurogei ikusle, GOAZ-kideak barne.

Hasi da emanaldia, abiada bizi bezain orekatuan, higidura eta erritmo zehazki sinkronizatuan. Antzez gai honek behar duen larritasun plastikoa neurri oneko fantasian. Oinarritua doa hasi eta bukatu arte, ikusle goa lilura giro hunkigarrian daramala.

Ordu t'erdia arnas batean. Txalo zaparrada estu luzea. ASTEko onena.



FINAL NAGUSIA

Lorez urriegi joan zaigun lorelari lorez hornitu dio azkena Antzerki Asteak, eta, lorez hasiera eman, aurten, ekainarekin hasiera omen doakigun udaberriari.

Berto giroan agurtu dugu gure XXVII ANTZERKI ASTEA. Hiru bertsolari on, clown artista bikaina gai jartzaile eta abar dutela, antzerki jolas politean.

Hirurogei bat ikusle. Ez da asko, baina... Errealaren partidak tabernak bete ditu pilotalekua huts samar utziz.

Dena dela, oso ondo pasa dugu arratsaldea eta gogoz txalotu dugu saioa.

GOAZ Antzerki Taldeak

Oro har

Bikaina atera zaigula ASTEA aitortu behar, bizi dugun zirkunstantzia giroa aintzat hartzen badugu bederen. Eskerrik asko! Udalari. Eskerrik asko, bereziki, gure ikuslego zoragarri honi!!

Zer sinesmen zituzten gure aurrekoek? Ze ipuin kontatzen zizkieten, ze ohitura zeuzkaten? Nola bizi ziren oraindik herrian bizi zaizkigun edadetuak? Festak nolakoak ziren? Dantzak, ligeak... Hainbat gai eta garairen inguruko ekitaldiak bildu ditu Udaleko Euskara eta Hezkuntza Batzordeak ekaineko ostiraletarako. Lehenengo biak hilaren 7an burutu ziren:

Debako kondairak ilustratzeko egindako marrazkien erakusketa



Azken urteetan herriko kondairak, ohiturak, tradizioa... biltzeko ahalegina egiten ari da Debako Udala. Ildo horretan, bost dira, jadanik, Euskara eta Hezkuntza Batzordeak argitaratutako kondairak: “Debako Irulea” izan zen lehendabizikoa, “Gau illa- Alos Torrea” bigarrena, “Hiru olatuak” hirugarrena, “Urkamendi” iazkoa eta “Irrazabalgo hormarteratua” aurtengoa. Alex Turrillasek ipini izan dizkie hitzak lehenengo laurei eta Goizane Aizpuruak azkenekoari, labetik atera berri dagoenari, hain zuzen ere.

Debako kondaira horiek ezagutarazteko argitaratu diren liburuxketako ilustrazioak, berriz, Jose Ignacio Treku margolari debarrak sortu ditu. Eta hark egindako ilustrazio horiek guztiak bildu eta Agirre Jauregian egon dira ikusgai astebetez –ekainaren 7an inauguratu zen–.

Erakusketan ikusgai izan diren bost kondaira horiek 1866. urtean argitaratu ziren lehenengo aldiz, “Leyendas Vasco-Cántabras” lanaren barruan. Bostak Debako lurretan kokatzen diren istorioak dira.

Idatzizko lehendabiziko bertsio haren egileak, Juan Venancio Araquistainek, ziurtatzen zuen istorio horiek “1865ean laurogeita zortzi urte ondo beteta zituen Debako andre baten ahotik literalki jasotakoak” zirela. Esaten zuen, gai-

nera, “emakumeak kondaira horietan fede handiagoa zuela munduko historia guztietan baino”, toki, harkaitz eta gertaeraxoko guztiak seinalatzen zizkiolako.

Kondairen lehenengo bertsio hura (garai hartako hizkeran idatzia, erromantizismo bete-betean), berridatzia izan da gerora eta, autoreen arabera, bertsio desberdinak argitaratu izan dira, garai bakoitzeko lexiko eta gustuetara egokituz eta, batzuetan, tokiak ere aldatuz.

Euskara eta Hezkuntza Batzordeak azaldu bezala, “erakusketaren asmoa izan da gure kulturaren zati eder bat ezagutaraztea: herriko kondairak. Eta hori guztia, sekula baino beharrezkoagoa denean aldarrikatzea, bizi dugun egoera zail honengatik, kultura dela edozein herrik egin dezakeen inbertsiorik onena”.

Gure kondairen ezagutza, gure herriaren ondasun inmaterial hau, belaunaldi berriei transmititu nahian, horiek argitaratu izan diren bakoitzean, Luzaro ikastetxeko ikasleek herritarren aurrean antzeztu egin izan dituzte.

Aurtengo hitzordua Agirre Jauregiko plazan burutu da, ekainaren 14an, Goizane Aizpuruak idatzitako “Irrazabalgo hormarteratua” kondaira antzeztu baitute herriko ikasleek.

“Itsasoa”, “Ohitura eta sinesmenak” eta “Nortasuna” dokumentalen proiektua

Herriko edadetuen ume eta gazte-tako kontuak biltzen dituzten hiru dokumental labur ere proiektatu zituzten ekainaren 7an, Agirre Jauregiko Ispiluen Gelan. Europar Geoparkean Astearen baitan kokatu zen hitzordua. Ekimen horren bidez, hain zuzen ere, Geoparkeko hiru herrietako euskarazko ahozko ondarea ezagutarazteaz gain, bertako euskaldun zaharrek oraintsu arte izan dituzten ohitura eta bizimodua erakutsi nahi izan dute. Horretarako, Deba, Mutriku eta Zumaiako biztanleen euskarazko testigantzak jaso dira hiru bideo-



tan, eta horietako bakoitzean gai ezberdin bat jorratzen da: “Itsasoa”, “Ohitura eta sinesmenak” eta “Nortasuna”. Proiektu hau Badihardugu Euskara Elkartearen laguntzarekin burutu

tako musika tradizionalak hartu eta moldatu, aldatu eta gaurkotutako pieza musikalak eskaini zituzten, ekitaldia jardun artistiko bilakatuz.

da, “Ahotsak” ekimenaren baitan (bideoak sarean daude ikusgai; Youtuben aurki daitezke, adibidez, “geoparkea: itsasoa”, “geoparkea: nortasuna” edo “geoparkea: ohitura eta sinesmenak” idatzita).

Karlos Turrillasek egin zituen aurkezle lanak hitzorduan eta berak kokatu eta osatu zituen, bere historia ezagutzekin, aipatutako hiru dokumental horiek. Gainera, The Orbital Planets Jazz Band taldeko kideek ere parte hartu zuten hitzorduan. Bideoen edukiarekin lotu-

Yolanda Arrieta idazlea Ostolaza Udal Liburutegian



Aurten ere Yolanda Arrieta idazlea Ostolaza Udal Liburutegian egon da, maiatzaren 6tik 9ra bitarte, eta harekin batera baita Luzaro ikastetxeko laugarren mailako ikasleak zein irakasleak ere: Miren Pilare, Garbiñe eta Lourdes. Astebetez **Luma zorrozten** aitzakiatzat hartuta, giro ezin hobean, neska-mutilak sormen lanetan aritu dira, betiere idazketa sortzailearen inguruan.

Yolandaren esanetan, “idazketa sortzaileak guztiok barruan dugun ahots gordearekin konektatzen laguntzen digu eta, idazketa tailerrak, berriz, bakoitzaren NI-tik datorren ahots propio hori besteekin konpartitu eta GU komun bat erakitzen”.

Datorren urtean ere berriro antolatzeko asmoa dugu. Eskerrik asko guztioi!!

Estibaliz Beltran de Heredia



Josune Arakistainek eta Alaitz Escudero txapela lortu zuten Getarian

Pasa den maiatzaren 25ean Trikitilari Gazteen Getariako XIV. txapelketa ospatu zen, eta Josune Arakistain lasturtarrak eta Alaitz Escudero debarrak osatutako bikotea izan zen garaile. Hemezortzi urte arteko gazteak (18 urtekoak barne) aritu ziren lehian, bederatzi bikote guztira, eta txapelketan hiruna pieza eskaini behar izan zituzten: trikitia; porrusalda, fandangoa edo arin-arina aukeran; eta pupurria. Bada, epaimahaiak Arakistainen (trikitia) eta Escuderon (panderoa) lana saritu zuen, 65,6 punturekin. Lehen postuan sailkatu zirenez, txapela ez ezik, 250 euroko saria ere lortu zuten gazteek.

Densply
IMPLANTS

- INPLANTEAK
- PADI-a (haurren programa)
- ESTETIKA
- ORTODONTZIA
- PERIODONTZIA
- ENDODONTZIA
- PROTESI FINKO / MUGIKORRA
- ODONTOLOGIA OROKORRA

NORA

HORTZ KLINIKA

Azpilgoeta 5
Mendaro
943 033 575

Lehen bisita, diagnostikoa eta aurrekontua doan.

www.aukera-inmobiliaria.com

Aukerarik onena!

943 12 13 95

Martxa onean doa Ontziratuz Zaitetz! kanpaina

Martxoaren hasieran, Debako Udalak, Kutxa Ekoguneak eta herriko hamaika dendek (harategi, urdaitegi eta arrandegi) **Ontziratuz Zaitetz!** kanpaina abiatu zuten, dendetako erosketetan ontzi edo tupperrak erabiliz, paper eta plastikozko poltsen erabilpena murrizteko helburuarekin. Eta, kanpainaren arduradunek nabarmendu dutenez, orain arteko balorazioa "nahiko ona" da: "batetik, saltokien parte-hartze eta ahalginearrengatik; bestetik, herritarrek kanpainari egin dioten harrerarengatik". Izan ere, Ekogunearen esanetan, Debako biztanle kopurua kontuan hartuta, hilabeteotan tupperrei eman zaien erabilera ona izan da.

Martxoan 1.600 bat ontzi berrerabilgarri banatu ziren Deban eta Itziarren, eta hilabetez hilabete gora egin du tupperren erabilerak gure herrian. Arrandegi, harategi eta urdaitegi gehienetan ontzi berrerabilgarriekin erosi duten herritarrei zozketarako txartelak banatu zaizkie -maiatzean, adibidez, 945 txartel banatu dira-, eta sarituek 30 euroko bale bat jaso dute txartela jaso duten saltokian bertan erosketak egin ahal izateko. Sarituen izenak dendetan eman dira ezagutzera.

Kanpainarekin bat egin eta ontzi berrerabilgarriak baliatzen jarraitzeko deia egin diete herritarrei.

Sukaldari eta ekoizleen topaketa Ozio-Biden



Bertako nekazal produktuak balioan ipini eta gure jatetxeetan tokiko produktuen erabilera bultzatzeko helburuarekin, Debabarrena eta Urola Kostako 40 bat sukaldari eta ekoizle elkartu ziren ekainaren 10ean Ozio-Bide elkartean. Debemen eta Urkome landa garapenerako elkarteek antolatutako ekimena izan zen, Geoparkea, Debegesa eta Urola Kostako Mankomunitatearen laguntzarekin.

"Gure kultura, ondarea eta paisaia plateran" izenburupean, ekimena **GUSTUM** programaren barruan kokatzen da. "Gustum" lurralde arteko egitasmo bat da eta landa garapena bultzatzea du helburu nagusi, tokian tokiko nekazaritzako kalitatezko elikagaiak sustatuz, sukaldaritzan, turismoa eta merkataritzarekin sinergiak bilatuz.

Topaketan, Asier Alcelay (Ketarri jatetxea, Getaria), Xabier Osa

(Urgain jatetxea, Deba) eta Julen Beaskoa (Kanala jatetxea, Itziar) sukaldariak plater bana prestatu zuten tokian tokiko produktuak erabiliz. Gainera, plater horiek prestatzeko erabilitako lehengaien ekoizleak ere bertan izan ziren. Xabier Osak, adibidez, "Kortaberri baserriko ilar krema eta tipulatxoak plantzan" izeneko platera prestatu zuen (Kortaberri baserriko Lourdes Arrona bertan zegoela). Julen Beaskoak, berriz, "Sukalkia Aittola Zahar baserriko Euskal Labeleko haragia eta barazkiekin" platera osatu zuen. Bertan egon zen, halaber, Xanti Oñederra Aittola Zahar baserrikoa.

Hitzordura hurbildu ziren ekoizle eta inguruko sukaldari guztiak platerak dastatzeko aukera izan zuten, Sagarmia baserriko Getariako Txakolinarekin eta Eibarko Sosola baserriko ogiarekin lagunduta.

Ekaina ekimenez beteta iritsi zaigu Gaztelekura

Ekaina bete-beteta iritsi zaigu aurten bai Gaztelekura eta baita Kuadrillategira ere. Urtero bezala, **Zubi Txiki** eguna ospatu dugu eta hilabete pasatxo eskaini diogu prestaketari. Kuadrillategira ostiralero hutsik egin gabe etorri diren gazteak eta Zubi elkarte gurasoak ezinbestekoak izan dira bidean.

Kuadrillategi, ez dakienarentzat, Gaztelekuko 14-15 urte bitarteko gazteekin 2 ikasturtetan zehar aurrera eramaten den egitasmoa da. Beraiekin, edozein eratako ekintzak burutzen dira; pintxo lehiaketak, bideo grabaketak, herrirako egiten diren festen zerbait antolaketa, jolas dinamikoak... Hala ere, eta edozein dela ekintza, beti dugu euskara oinarritzat. Gazteak euskaraz ongi pasatzea da helburua, eta aurtengoan, esan bezala, ekintzak era guztietakoak izan dira. Hauen artean, azkena, Zubi Txiki Basoa prestatzea izan da, gure herriko ume eta gaztetxo ongi pasarazi asmoz.

Bestalde, Gaztelekutik, Uraren Eguna prestatzeari ekin diogu. San Juan suen garaia izanik, gaztetxoek ere badutelako suaz gain, urarekin jolas desberdinak burutu eta bustitzeko beharra. Uraren egun hau ekainaren 21ean, arratsaldeko 5etatik aurrera ospatuko dugu hondartzan. Garaiz bazabiltza, animatu zaitetz!



Ikusten duzun bezalaxe, ez daukagu aspertzeko astirik Gaztelekuan, ezta Kuadrillategin ere. Ekainaren azken aste honetan, 3. mailakoekin 3 eguneko irteera burutuko dugu Gaztelekutik. Hau gutxi balitz, uztaile ere potente datorkigu, Donosticup, Arcachon ur parkera irteera, Donostiako Santa Clara uhartera bisita, Errealaren entrenamendua Zubietan..., oraindik konfirmatzeko dauzkagun irteerak ahaztu gabe!!

Gaztelekuko Hezitzaileak



BERRIKETAN GAZTEA

Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrean Sortua.
2013ko ekaina

Murrizketen harira

Mendata institutuko irakasle batekin egon ondoren, informazio hau bildu dugu:

-Etorkinak: lehen, irakasle bat zuten beraiei euskara irakasten eta orain beste gelakideekin batera ikasi behar dute. Irakasle baten jardun erdia etorkinei euskara erakusteko erabiltzen zuten eta orain euren denbora librean erakutsi behar diete, edo denbora tarte motzagoan.

-Ordezkapenak: irakasle batek baja hartzen duenean (arrazoi pertsonalengatik), lehen 2 egunetara ordezko irakasle bat etortzen zen eta orain 5 egun pasa behar dira ordezko irakaslea etor dadin.

-Laguntza: PIE-n lehen irakasle batzuk konkretuki horretarako zeuden eta orain ez daude hainbeste laguntza.

-Orain dela gutxi esan dute DBH bukaeran azterketa moduko bat egingo dutela, selektibitatearen antzekoa, DBHko titulua lortzeko.

Lehen, gela bakoitzean ezin ziren 25 ikasle baino gehiago egon; orain, ordea, 30 ikasle inguru egon daitezke gela bakoitzean, arazorik gabe.

Donostiako irakasle gehienak beltzez jazten hasi ziren, murrizketak zirela eta. Geroago, pertsona batek murrizketen kontrako kamisetak egin zituen. Ondoren, beste zenbait herritan kamiseta horiek jazten joan dira.

Adibidez, Debako Mendata institutuan ostiralero irakasle gehienek murrizketen kontrako kamiseta beltza jazten dute.

Bestetik, eskolara sartu baino lehen, goizeko 9etan, plazan elkartzen dira Luzaroko irakasle batzuk protesta gisa.




MURRIZKETARIK EZ

Txangoa Lasturrera

Urtero bezala, kurtso bukaeran Lasturrera joango gara. Bertan pasatzen dugu goiza ikas-tetxeko ikasle eta irakasle gehienekin. Goizez irteten gara Debatik eta gutxi gorabehera bi ordura iristen gara Lasturrera.

Lasturrera zezenak eta poniak eramaten dituzte eta zezenekin eta poniekin jolasten aritzen gara gu. Hamaiketako ere ematen digute bertan, ogitarteko handi bat (txorizoa, txokolata...) normalean, eta edariak ere eskaintzen dizkigute: Coca Cola, Fanta, ura...

Bukatzeko, autobusa egoten da gure zain eta bazkalordurako Debara iristen gara guztiak, nekaturik eta izerditurik.



ELKA RRIZ KETA

Tomas Aznal: “Beti dago hobetzeko aukera”

Oraingo honetan, Mendata ikastetxeko Tomas Aznali egin diogu elkarrizketa. Besteak beste, irakaskuntzan noiz hasi zen eta urte hauetako ibilbidea kontatu digu.

Noiz hasi zinen irakasle bezala lan egiten? Non?
1984an, 25 urterekin hasi nintzen irakasle bezala lan egiten, Magisteritza Eskolan.

Zenbat urte daramatzazu klaseak ematen? Eta zenbat urte Debako institutuan?
29 urte daramatzat klaseak ematen. Debako institutuan 13 ikasturte eman ditut irakasle.

Nolakoa da zure harremana irakasleekin? Eta ikasleekin?
Irakasleekin nahiz ikasleekin oso ondo konponetzen naiz, ez dut inoiz arazorik izaten.

Pozik al zaude ikasleei erakusten diezun materialarekin?
Bai, pozik nago. Irakasten dugun materia egokia dela iruditzen zait, baina beti dago hobetzeko



aukera.

Ikasleei zerbait irakasten diezunean benetan ikasi dutela uste al duzu? Zergatik?

Denetarik dago; batzuek betirako ikasten dute, eta beste batzuek, berriz, azterketarako bakarrik ikasten dute. Zergatik? Ba hori beti gertatzen delako eta ikasleak horrelakoak direlako, sistema bera egokiena ez delako ere izan daiteke.

Zein izan da Mendatako institutuan egin dizuten txantxarik txarrena?

Inoiz ez didate txantxarik egin.

Gustatuko litzazuke hurrengo urteetan Debako institutuan jarraitzea? Zergatik?

Bai, noski. Hamahiru urte eta gero oso gustura eta ohituta nagoelako.

KONTTSOLAK

Oraingo honetan, Mendata ikastetxean kontsolei eta bideo-jokoei buruzko galderak egin dizkiegu ikasleei:

- 1.- Ba al duzu kontsolarik? Zein?
- 2.- Zer nolako jokoak gustatzen zaizkizu?
- 3.- Maiz jokatzen al duzu?
- 4.- Gustatuko al litzaizuke beste kontsolaren bat izatea? Zein? Zergatik?
- 5.- Eta bideo-jokorik? Zein? Zergatik?
- 6.- Jolastea gomendatzen al duzu?



Gorka Gonzalez:

- 1.- Bai, Play Station 2, Play Station 3 eta PSP ditut.
- 2.- Gehienbat gerrazkoak gustatzen zaizkit, baina akziozkoak ere gogoko ditut.
- 3.- Bai, asko jokatzen dut.
- 4.- Bai, Play Station 4a. Oraindik ez dute atera, baina grafiko eta joko hobekak edukiko ditu.
- 5.- Bai. Call of Duty Ghosts. Grafiko hobekak jarri dizkiotelako.
- 6.- Bai, denbora oso azkar igarotzen delako.



Asier Torres:

- 1.- Bai, Xbox 360, Play Station 2, Nintendo DS eta Game Boy ditut.
- 2.- Futbola, karrerak, akzioa, tiroak. Denetik...
- 3.- Asteburuetan gehienbat, sei ordu gutxi gorabehera.
- 4.- Bai, Play Station 3a, online eta doakoa delako.
- 5.- Fifa 13a, nire lagunaren aurka jokatzen.
- 6.- Bai, noizbehinka entretenigarria delako.



Alex Alonso:

- 1.- Bai, Play Station 2 eta Xbox 360 ditut.
- 2.- Lasterketa eta kiroletakoak.
- 3.- Bai, 4 ordu inguru.
- 4.- Ez. Beste bi ditudalako.
- 5.- Bai, Formula1 2013. Oso gogoko dudalako Fernando Alonso eta Formula1a ere bai.
- 6.- Bai, oso entretenigarria delako.



Eneko Jimenez:

- 1.- Bai, Play Station 2, Play Station 3, Nintendo DS, PSP eta Game Boy ditut.
- 2.- Futbola eta akziozkoak.
- 3.- Asteburuetan hiruzpalau ordu.
- 4.- Bai, Play 4a laster aterako dutelako, eta oso ona izango delako.
- 5.- Formula 12 gehienbat.
- 6.- Bai, baina pasatu gabe.



Julen Monasterio:

- 1.- Bai, Play Station 3 eta Play Station 2 ditut.
- 2.- Abenturazkoak eta akziozkoak.
- 3.- Bai, astean 4 ordu inguru.
- 4.- Ez. Play Station 3arekin gustura nagoelako.
- 5.- Asesins Cred 4. Gustuko dudalako joko hori.
- 6.- Gehiegi jolastea ez.



Iratz Fernandez:

- 1.- Bai, Xbox 360 eta PSP bat apurtuta.
- 2.- Futbola, abenturak eta tiroak.
- 3.- Asteburuetan etxeko lanik ez dudanez, 4 ordu.
- 4.- Ez, conforme nago dudanarekin.
- 5.- Beno, bai, GTA V urteko jokorik onena izango dela esaten dutelako.
- 6.- Bai, asteburuetan zertxobait ondo dago, eta batez ere eguraldi txarra egiten duenean.



DenBord-paisak

TXISTEAK

***Maisuak** Jaimitori galdetu dio:

- Jaimito, zenbat dira bi gehi bi?
- Auskalo! Ez badidazu datu gehiago ematen...!



***Gizon** bat medikuarengana joan zen eta zera esan zion:

- Mediku jauna, arazo bat daukat. Nire puzkerrek ez dute usainik.
- Ea, bota ezazu bat oraintxe!
- PPPPRRRRRRRR!
- Hori larria da. Ebakuntza behar duzu.
- Ipurdian?
- Ez, gizona, sudurrean.


asmakizuna

***Altzaporrura** bidean zazpi atsorekin gurutzatu naiz. Atso bakoitzak zazpi zaku zeramatzan eta zaku bakoitzean zazpi arkume. Zenbat atso eta arkume zihozzen Altzaporrura bidean?



Bat ere ez: ni nindoan Altzaporrura, ez atsok.

QUIRTU BIDEA



EGILEAK: Amaia Mendikute, Jon Yarza eta Maria Aizpurua

LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala



PRENTSA TALERRA 2012-2013

Naia Orbegozo
Maria Aizpurua
Jon Yarza
Iratz Fernandez
Imanol Sobrado
Jon Albizu

Aitor Gonzalez
Alex Treku
Ane Garcia
Nora Mandiola
Iker Leiro
Amaia Mendikute

Koordinatzailea: Iraide Otazua

“Debarren Egunean, plazara sartzean sentitu genuen jendearen babesa eta bultzada ezin da hitzekin deskribatu”



Ander Salegi

Debako giza proba taldeak Debarren Egunean egin zuen bere lehenbiziko agerraldia. Mendaroaren aurka lehiatu ziren, Euskal Jolas frontoi bete-betean, eta indar erakustaldi txukuna eskaini zuten, lehenbiziko garaipena etxean bertan lortuta. Taldearen ibilbidea hasi baino ez zen egin egun horretan. Gipuzkoako Txapelketa datorkie orain.

Nolatan sortu duzue taldea? Ideia nola bururatu zitzaizuen?

Garikoitz Sukia izan zen ideia honen bultzatzailea. Gari beti izan da herri-kirol zalea, eta Mendarokoek giza probarako taldea atera zutela entzun zuenean, Deban ere talde bat sortzea posible zela pentsatu zuen. Horrela, Debako gazte batzuen ideia horrekin tentzera etorri zitzaizun... eta, gaur arte.

Kirol mota hau ez da oso ezaguna inguru hauetan. Aurreiritzirik ere entzungo zenuten, akaso, jendearen ahotan...

Bai, entzun ditugu. “Horretarako zoraturata egon behar da”, “nola mugitu behar dezue harri haundi hori”, “gerritik eta bizkarretik majo sufritu beharko duzue”... betiko aurreiritziak, badakizu. Izan ere, oraindik ez baita oso ezaguna kirol mota hau.

Nortzuk osatzen duzue taldea?

Hamabi gara guztira: Gari Sukia, entrenatzailea (Deba, 35 urte); Niko Becerra (Deba, 38 urte), Arbeiri Alberdi (Deba, 36 urte), Jon Etxaniz eta “Tasio” (Deba, 33 urte), Harkaitz Aizpurua eta “Elur” (Deba, 33 urte), Julio Pintos (Uruguay, 33 urte), Josu Tapia (Deba, 30 urte), Unai Salegi (Deba, 28 urte), Borja Malabe (Deba, 27 urte), Borja Lekube (Deba, 26 urte), Xabi Arritokieta (Deba, 26 urte) eta Ander Arrizabalaga (Itxaspe, 26 urte).

Zertan datza giza proba? Alegia, harriari tiraka aritzen zarete. Baina zenbat kiloko harria izaten da? Zenbat denbora aritu behar izaten duzue?

Bai, proba harriari tira egitean datza, baina ez edonola. Indarra eta prestakuntza fisikoak gain, teknika handia behar da indarra alperrik ez egiteko eta horrela esfortzuari etekinik handiena ateratzeko. Kirol honen helburua zera da: ahalik eta plaza (luze bat) gehien egitea 20 minututan. 8 pertsonen tiratzen dugu batera proba bakoitzean. Tiratzaileak burni bati lotuta goaz, arnes batzuen bidez, eta era berean burni hori harriari lotuta doa, kate batekin.

Hasieran, urtarrila aldera, 500 kiloko harri batekin hasi ginen entrenatzen; ondoren burni zati bat jarri genion gainean eta horrela 750 kilora igo zen pisua. Baina apirillean 900 kiloko harri berri bat ekarri genuen eta horrekin entrenatu dugu azken hilabetean, Debarren Egunerako begira. Eta laster harri berri bat ekarriko digute, 950 kilokoa, Gipuzkoako txapelketan 900-1000 kilo arteko harriarekin tiratzen baita.

Nolakoak dira zuen entrenamenduak?

Entrenamendu fisikoak dira. Bereziki hanketako indarra eta bihotzaren erresistentzia lantzeko entrenamenduak. Korrika eta harriari tiraka aritzen gara normalean. Astearte eta ostegunetan korrika egiten dugu beroketa gisa eta ondoren harriari tiraka ibiltzen gara.

Serie batzuk eginez, teknika lantzen (bueltak, irteerak, pausua...), erritmoa, deskantsu denborak neurtzen... Entrenamendu hauek Euskal Jolas pilotalekuan egiten ditugu, eta larunbatetan mendi buelta bat egiteko elkartzeko gara; oinez, korrika edo bizikletaz.

Honetan aritzeko beharrezkoa al da prestakuntza fisiko jakin bat izatea?

Bai, noski, ezinbestekoa. Denok egin izan dugu kirola giza proban hasi aurretik ere. Batzuek mendian, triatloietan, errugbian, futbole, arraunean, bizikletan... Beharrezkoa da fisikoki gutxieneko baldintza batzuk izatea hemen hasi aurretik, bai.

Nola bizi izan zenuten Debarren Eguneko erakustaldia?

Debarren Eguna izugarria izan zen! Hilabete batzuetako lan gogorren emaitza izan zen. Guk aurreikusitako marka barruan ibili ginen (40 plaza eta erdi). Baina ez zen batere erraza izan. Gogor entrenatu dugu horretarako. Eta geroko ospakizuna oraindik eta hobe izan zen, nola ez! Bagenekien eguraldi txarra zetorrela; baina, sortu zen giro izugarria bizi eta gero, eguraldia gutxienekoa izan zen. Plazara sartzean gure gorputzek sentitu zuten jendearen babesa eta bultzada ezin da hitzekin deskribatu... horrelako momentuengatik benetan merezi du plazan indar guztiak agortzea. Benetan egun borobila, bai jauna!

Hemendik aurrera zer beste proba egingo dituzue?

Zestoan erakustaldia dugu ekainaren 22an. Ekainaren 29an, berriz, Gipuzkoako Txapelketa dugu Orion (lehenengo tiraldia): Deba vs Orio vs Berrobi vs Mendaro. Mendaron lehiatuko da Gipuzkoako Txapelketako bigarren tiraldia, uztailearen 13an: Deba vs Orio vs Berrobi vs Mendaro. Finalera sailkatuz gero, ikusiko dugu... Gipuzkoako txapelketan 7 ekipo gara, 2 taldetan banatuta. Gure taldea Oriok (iazko azpitxapeladuna), Berrobik (iazko txapeladuna), Mendarok eta Deba osatzen dugu. Bi jardunaldi izango dira, eta taldean aurreneko 2 postuetan geratuz gero, finalera.

Beste zerbaite nabarmendu nahiko zenukete?

Bai. Eskerrak eman nahiko genizkieke Debarren Egunean Euskal Jolasera hurbildu ziren denei, beraien animo eta txalengatik. Baita Urretxuko giza proba taldekoei ere, guk erabiltzen dugun burnia beraiek lagatakoa baita. Eta eskerrak, baita ere, Debako Udalarari, Kanala jatexeari eta Pedro Larangari, guretzako harri berri bat egingo duelako. Azkenik, esan ekainaren 29an Gipuzkoako Txapelketan parte hartzen dugula Orion (San Pedro jaiak), arratsaldean. Beraz, hemendik jendea animatu nahi dugu bertara hurbiltzeko. Bihotzez eskertuko dugu. Eskerrik asko Zuhatzari ere, artikulu honengatik.

Herriko jubilatuek, Cantabriara egun pasa



Pasa den ekainaren 5ean, Arbil Jubilatuen Elkarteak antolatuta, egun osoko irteera burutu zuten herriko jubilatuek Cantabriara. Goizeko 8:15ean bi autobusetan irten eta gaueko 22:00etan itzuli ziren Debara. "Izugarri ondo antolatutako irteera" izan zela kontatu digute bertan parte hartu zutenek. Goizean zehar, Santillana del Marren urdaiazpiko ogitartekoaz gozatu ostean, Santillana del Mar bera eta Comillas bisitatu zituzten, "herri politak biak ala biak". Eguerdirako Santanderreko Casa Miguel jatetxera hurbildu eta bazkari paregabea izan zuten. Gero Santander bisitatu zuten, erdigunea eta kaialdea ezagutuz. "Izugarri pozik itzuli ginen herrira. Beraz, eskerrak eman nahi dizkiegu antolatzaileei", adierazi dute txangoan parte hartu zutenek.

Herri argazkia maiatzaren 18ko "plazak bete" ekimenaren baitan



Debarren egunaren bezperan, eguraldi kaxkarrari aurre eginez eta festa giroan eten bat gauzatuz, maiatzaren 18ko "plazak bete" ekimenaren barruan antolatutako ekintzetan parte hartu zuen hainbat herritarrek. Ekimen horretan birgogoratu zen oraindik ere lau herritarrek hemendik ehunka kilometrora jarraitzen dutela espetxeratuak eta, gainera, horietatik hiruk aspaldidanik beteak dutela beraien zigorra eta, hala ere, giltzapean dauzkatala.

Hau horrela izanik, giza eskubideak era nabarmenean urratzen dituzten salbuespeneko neurri guztiekin amaitzea eskatu zen berriro ere, gatazkaren ondorioei soluzio definitibo bat emateko bideak urratzearen beharra azpimarratuz.

Gaur egungo espetxe politikaren salbuespen neurrien ondorioak zuzenean jasaten dituzten senideei agurra dantzatu zieten eta ondoren "Giza eskubideak, konponbidea, bakea" lemapean argazkia atera zen, horrela guztion nahia irudikatuz.

Debako Herrira Bilgunea

Amaiak Bat Taldeak ekainaren 29an agurtuko du denboraldia

Aurten ere, Kultur Elkartearen burutuko den Urteroko Batzar Orokorren ondoren, denboraldi bukaerako bazkaria ospatuko du Amaiak Bat taldeak. Ekainaren 29an izango dira bi hitzorduak. Bazkari herrikoia Aldats pilotalekuan izango da, eguerdiko 14:30ean -entsalada, paella eta hojaldre pastela-. Bazkarira joan nahi duten bazkide eta zale guztiek eskuragarri dituzte jadanik tiketak Atozte eta Buru Zuri tabernetan. Bazkideek 10 euro ordaindu behar dute eta gainontzekoek, berriz, 15 euro.

Eibartarrak nagusitu dira Gipuzkoako Hiru Txirlo bolo txapelketan

42 txirlorrek, San Miguelgo Unai Elorzak eta Lasturko Gotzon Urangak baino bi gehiagorekin, irabazi zuen Asola-Berriko Ibai Diezek Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketaren 44. edizioa. Emakumezkoetan Floreagako Idoia Muñoz izan zen onena, nagusietan Asola-Berriko Bittor Astigarraga eta jubeniletan beste eibartar bat, Egoitz Blanco. Hilaren 22an Lehendakari Saria izan zen jokoan Azpeitiko Garmendipen, Gipuzkoako 64 onenen artean.

Udako kirol kanpaina eskaintza zabalarekin abiatu berri dute

Urtero bezala, Debako Udaleko Kirol Sailak udako kirol kanpaina zabaldu berri du. Izen-ematea ekainaren 10ean zabaldu zen, Turismo Bulegoan. Piraguismoa, surfa, body boarda, esku pilota, paleta eta xakeaz gain, 2004-2005ean jaiotakoek igeriketa ikastaroa egiteko aukera ere izango dute aurten. Informazio gehiagorako: www.deba.net edo Turismo Bulegoa (943 19 24 52).



Debako ibilketa nordikoaren gunea sortu dute

Centros Nordic Walking Guneak ©



Debako Udalak, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailaren laguntzarekin, Debako ibilketa nordikoaren gunea sortu du. Proiektua apirilean aurkeztu zen, udaletxeko batzar aretoan, eta pasa den ekainaren 8an erakustaldia egin zuten zumardiko kioskoan, ibilketa nordikoaren nondik norakoak eta oinarrizko teknikak herritarrei zuzenean azaltzeko.

Ibilketa nordikoaren helburuak hauek dira: kirola sustatzea, osasuna indartzea, jarduera fisikoaren bitartez bizitza-ohitura osasuntsuak piztea, eta finean herritarren ongizatea areagotzea zein turismoa bultzatzea. Pertsona guztientzako aproposa izan daitekeen kirol jarduera da; erraza eta azkar ikasten dena. Bi makil berezi erabiltzen dira eta, ibiltzerakoan, hanke ez ezik gorputzaren goiko atalak ere parte hartzen du. Besteak beste, indar muskularra, sistema kardiobaskularra, koordinazioa eta mugikortasuna hobetzen lagun dezake.

Finlandian du jatorria ibilketa nordikoak eta, gaur egun, milioika lagunek praktikatzen dute. Kirol arloko mediku eta profesionalak elkarlanean garatutakoa da eta praktikatzen

dutenei egoera fisikoan hobekuntzak eskaintzen dizkie, neke sentrazio baxua eraginez.

Bost ibilbide

Ondo seinalizatutako bost ibilbide ditu Debako ibilketa nordikoaren gunea. Maila guztietan pentsatu eta, bakoitzarentzat, gutxieneko kilometroak markatu, kartografiatu eta zailtasunaren arabera sailkatu dira: berdea (oso erraza), urdina (erraza), gorria (exigentea) eta beltza (oso exigentea).

Ibilbideen gaineko informazioa lortzeko, makilen alokairurako eta bestelakoetarako, Debako Informazio eta Turismo Bulegora jo behar da. Arduradunen esanetan, "ibilketa nordikoaren gunea Debako erakargarritasun turistiko bat gehiago izango da, jarduera praktikatzeaz gain udalerriko aberastasun paisajistikoa eta natura ezagutzeko aukera emango baitu". Jarduera honi buruzko informazio guztia www.nordicwalkinggunea.net webgunean eskura daiteke.



Centros Nordic Walking Guneak ©

Luzaroko ping-pong eta esku pilota txapelketak

Azken urteetan bezala, aurreko ere ping-pong eta esku pilotako txapelketak jokatu dira Luzaron.

Ping-pongeko lehia Luzaroko eskolan egokitutako ping-pongerako esparru estalian jokatu da. Benjamin mailako finalak maiatzean izan ziren, eta kanporaketa ugariaren ondoren, eta tarte-estualdi batzuk pasa eta gero, ondorengo hauek izan dira txapelketako irabazleak (benjaminetan):

***Mutilak:** Jon Gandiaga, Xabi Iribar, Jon Ramirez eta Gorka Arrizabalaga.

***Neskak:** Naroa Etxeberria, Eider Sanz, Nahia Perez eta Maren Beristain.

Esku pilotako txapelketa Luzaro eskolako frontoian jokatu da. Alebiren finalak ekainean burutu dira, eta hemen dituzue txapelketako irabazleen izen-abizenak:

***Mutilak:** Ibai Salegi, Urko




Azkoitia, Roke Etxeberria eta Aitor Arakistain.

***Neskak:** Jone Gomez, Itsaso Oñederra, Ane Txurruka eta Ane Zulaika.



Eskerrik asko txapelketetan parte hartu duzuen guztioi. Datorren ikasturteko txapelketan berriro ikusi nahi zaituztegu. Zorionak txapeladunei!

Luzaro Eskolako Kirol arduradunak



Agenda

Ekainak 28, ostirala

-19:30. **Azken ostirala.** Preso eta iheslari politikoen aldeko mobilizazioa plazan, Herrira mugimenduak deituta.



-22:00. **San Pedro bezpera.** Zahagi erre-tzea, txistulariekin eta Musika Eskolako dantzariekin. Plaza zaharrean.

Uztailak 6, larunbata

-Merkatu Txikia, estalitako pasealekuan. Goizean.



-12:00. **VI. Debako Itxasmila Igeriketa Zeharkaldia,** hondartzan.

Uztailaren 4tik 7ra

-Zaporeen feria, zumardiko kioskoan.

Uztailak 7, igandea

-9:30. **Nesken pala partidak,** Aldats pilotalekuan.

Uztailak 13, larunbata

-10:30. **I. Lasturko Mendi Lasterketa.** Lasturko Plazatik abiatuko da.

Uztailak 16, asteartea

-19:00. **Udara Kulturaz Blai.** "Maddi pirata" haurrentzako ikuskizuna, Ane Monna, Oskola eta Karramarroi antzerki taldearen eskutik. Hitzordua Zuhatza Euskara Elkarteak antolatzen du, eta Zumardian izango da.

Uztailak 21, igandea

-9:00. **Korrikamarra.** Hondartzako aldalekuan egiten da hitzordua.

Uztailak 23, asteartea

-19:00. **Udara Kulturaz Blai.** "Katapuntxinpun festa" haurrentzako ikuskizuna, Kiki eta Koko pailazoen eskutik. Hitzordua Zuhatza Euskara Elkarteak antolatzen du, eta Zumardian izango da.

Agirre Jauregiko erakusketak

-**Arte Eskolak** ikasturte amaierarako antolatutako erakusketa ekainaren 30a bitartean egongo da ikusgai.

-**Pablo Sorozabalen** omenezko ekimenen baitan, erakusketa inauguratuko dute uztailaren 26an.

Kartel lehiaketak

-Zuhatza Euskara Elkarteak irailan ospatuko dugun aro berriko XVI. Euskal Jairako kartel lehiaketa antolatu du.

Kartelak derrigorrez testu hau izan beharko du: "EUSKAL JAIA 2013 DEBA". Partaideak bertakoak izan behar dira. Kartelen neurria gutxi gorabehera 50x65 zenti-

metrokoa izango da, eta formatuak nahitaez bertikala izan beharko du (teknika librea). Kartelak ekainaren 28rako aurkeztu behar dira, Zuhatzaren lokalean. Kartel irabazlea botonen bidez hautatuko da, erakusketaren batean, eta lan saritua Zuhatzaren esku geratuko da. Animatu eta parte hartu!

-**San Rokeak 2013** Kartel Lehiaketa: Jai Batzordeak herriko jaietarako kartel lehiaketa antolatu du. "Abuztuak 14tik 18ra. 2013 San Roke Jaiak

Deba" izenburua eraman beharko dute lanek. Uztailaren 15etik 20ra bitartekoa izango da lanak aurkezteko epea. Informazioa: 943 19 28 40.

Geoparkeko irteera gidatuak

-Euskal Kostaldeko Geoparkeak bisita gidatu ezberdinak eskainiko ditu udan. Horien gaineko informazio eguneratu

eta osatua jasotzeko, www.geoparkea.com ataria kontsultatu edo deitu Debako Turismo Bulegora (943 19 24 52).

Udako ordutegia liburutegian

-Ekainaren 24tik aurrera, Ostolaza Udal Liburutegiak udako ordutegia izango du.

*Liburutegi orokorra:

astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara izango da zabalik. Haur liburutegia, berriz, 10:00etatik 13:00ak arte.

Yako Debako Surf Eskola

-Yako Debako Surf Eskolak surf eta arraun surf/Stand Up Paddel ikastaroak eskainiko ditu udan. Informazio gehia

gorako edo izena emateko: www.yakosurf.com atarian edo 649 444 810 zein 943 029 600 telefono zenbakietan.

Seven Clovers
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095

ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **ekainak 28, 29, 30.**

uztailak 8, 9, 10, 11.

Burgoa Zuazo: **ekainak 24, 25, 26, 27.**

uztailak 12, 13, 14.

22:00etatik 09:00etara, Elgoibarren botika bat guardian.

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: ekainak 29
uztailak 6

BURGOA ZUAZO: uztailak 13 eta 20

9:30 - 13:30



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)




ABEL

Kristaldegia

Mota guztietako kristalak
Lan kristalarasak

Ibaiondo, 2 • 48700 ONDARROA (Bizkaia)
Tel. 946 833 269 • Fax 946 134 291 • E-mail: abel-kristal@euskalnet.net



ARKATZA


Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA



ISABEL FRUTADENDA

Sokagin Kalea, 2 beheka. 20820 DEBA
943 029 186

URDAITEGIA AITTOLA HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA



kutxa

zugandik zugana

haizea

estetika

Tlf. 943 029 607
Iturkale 22, 1 eskubia
sarrera Zesterokua plazatik



BURU - ZURI

Taberna

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



Kafetegia

Foruen Plaza
Tel.: 943 191 035
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Calbeton



JATETXEA

Agustín Larrañaga Elorza

Denboraldiko platerra
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

L.A.

LARRAMENDI ANAIK, S.L.

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959
Mobila: 670 411 786
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA
20820 DEBA (Gipuzkoa)

UDARA KULTURAZ BLAI

KULTURAZ BLAI, EUSKARAZ BLAI, HAUR ETA GAZTE HURBILDU ALAI!!



**ANE MONNA, OSKOLA ETA
KARRAMARROI**
"Maddi pirata"
uztailak 16. 19:00etan, zumardian



KIKI ETA KOKO
"Katapuntxinpun Festa"
uztailak 23. 19:00etan, zumardian



MONDA ETA LIRONDA
"Baietz lortu"
uztailak 30. 19:00etan, zumardian

Nik maite
dud
euskara



DEBABA
Udal Euskaltegia

Ifar kalea, 12
20870 DEBA
943 192 236

e-posta: elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

UDA IKASTAROA

IRAUPENA: 80 ORDU

UZTAILAREN 1etik 24ra (3 ordu egunean)
IRAILAREN 2tik 13ra (3 ordu egunean)

Prezioa: 118 €

Ikasle eta langabetuentzako prezioa: 74 €
Bekatze - sistema

MATRIKULALDIA: Ekainaren 28ra arte

LAN – POLTSA

Orain bi urte osatutako lan-poltsak beste urtebeteko jarraipena izango du. Bertan izena eman zenuten guztiok agiriak eguneratzeko aukera izango duzue uztailaren 12a baino lehen. (4. maila, HABEko historikoa, e.a.). Dokumentazioa Elgoibarko Udal Euskaltegiko idazkaritzan aurkeztu behar da.